
PRENTSA OHARRA

BILBOKO UDALAK KULTUR SEKTOREARI LAGUNTZEN DIO, EKOIZPEN ARTISTIKORAKO BI DEIALDI BERRIREKIN

- Bi deialdien helburua Bizkaiko sektore artistikoari laguntza da, kultur ekoizpenerako baliabideak eskainiz.
- BilbaoArte Fundazioaren bidez makroerakusketa bat deituko da, "Ekaitzaren ondoren" izenekoa, eta saiakuntza kritikoetarako deialdi bat, "Isiluneen artean" izenekoa, osasun-krisiaren ondorioen inguruan.

(*Bilbo, 2020ko ekainaren 10ean*).- Bilboko Udalak, BilbaoArte Fundazioaren bidez, Bizkaiko artistei zuzendutako bi deialdi berri aurkeztu ditu, 100.000 eurotik gorako balioa dutenak, Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko eta arte garaikidea sortzeko Bizkaiko sektorea sustatzeko.

#BilbaoAurrera Planaren esparru orokorraren barruan, Udalak Bizkaiko sektore artistikoari laguntzen dio kultur ekoizpenerako baliabideak eskainiz, testu kritikoen deialdi baten bidez eta egungo testuinguru historikoan sortutako artelan eta bitartekotza-esku-hartzeen makroerakusketa baten bidez. Covid-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko egungo egoerarekin bat datozen ekimenak dira.

Udalak arte eta kultura ekoizleen funtsezko eginkizuna nabarmendu nahi du, haien ekarpena eta garrantzia ezinbestekoak eta eztabaideazinak bihurtu baitziren konfinamenduan. Krisi-egoeren aurrean oso ahula den kolektibo bati laguntza da helburua, bai eta kultura-sektorean duen eginkizuna eta lana berreskuratzea ere, bere lanak eta gogoetak ikusaraziz.

"EKAITZAREN ONDOREN", erakusketa eta ekintza osagarrien deialdia

Deialdi honen helburua hautatutako proposamenekin erakusketa bat edo batzuk egitea da. 25 lagunten emango dira, 2.000 eurokoak, eta erakusketaren ondoren 5 proiektu artistiko hautatuko dira. Proiektu horien izaera eta eduki egokienak egungo egoera eta horrek adierazten duen erantzun sozial, ekonomiko, politiko eta artistiko konplexua adierazi, aztertu eta/edo hausnartuko dute. Hautatutako proposamen horiek 5.000 euroko saria jasoko dute (oinarriak kontsultatu).

"ISILUNEEEN ARTEAN", pentsamendu kritiko kulturalari buruzko testuen deialdia

Deialdi honen helburua arte garaikideko praktiken bidez, Covid-19tik eratorritako egungo egoeraren aurrean sortzen ari den pentsamendu kritikoaren ekoizpenari erantzutea. 30 proposamen hautatuko dira gehienez, eta horien egileek 100 euro jasoko dituzte testua zabaltzeko eskubideen lagapen gisa. 1.200 euroko sari bakarra ezarriko da zeregin horretarako berariaz deitutako epaimahai batek hautatutako lan irabazolearentzat (kontsultatu oinarriak).

Bizkaian jaio eta/edo bizi diren eta artearekin eta pentsamenduarekin lotutako ekoizpena duten pertsona guztiak aurkeztu ahal izango dira bi deialdietara, adin-mugarik gabe.

Informazio gehiago / Más información



BilbaoArte

Fundación BilbaoArte Fundazioa

www.bilbaoarte.org

Prensa y comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus

NOTA DE PRENSA

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO APOYA AL SECTOR CULTURAL CON DOS NUEVAS CONVOCATORIAS PARA LA PRODUCCIÓN ARTÍSTICA

- El objetivo de ambas convocatorias es apoyar al sector artístico de Bizkaia facilitando los recursos para la producción cultural.
- A través de la Fundación BilbaoArte se convocará una macroexposición, “Tras la tormenta”, y una convocatoria de ensayos críticos, “Entre silencios”, en torno a los efectos de la crisis sanitaria.

(Bilbao, 10 de junio de 2020).- El Ayuntamiento de Bilbao, a través de la Fundación Bilbao Arte, con el fin de amortiguar los efectos de la crisis provocada por el Covid-19 y de incentivar el sector local de la creación de arte contemporáneo, ha presentado dos nuevas convocatorias destinadas a artistas de Bizkaia, por valor de más de 100.000 euros.

Dentro del marco general del Plan #BilbaoAurrera, el Ayuntamiento apoya al sector artístico de Bizkaia facilitando los recursos para la producción cultural a través de una convocatoria de textos críticos y una macroexposición de obras artísticas e intervenciones de mediación generadas en el actual contexto histórico. Se trata de una serie de iniciativas acordes con la actual situación derivada de la crisis sanitaria provocada por el Covid-19.

El Ayuntamiento quiere destacar el papel fundamental de las productoras y productores de arte y cultura cuya aportación e importancia se hicieron indispensables e indiscutibles durante el confinamiento. Se trata de apoyar un colectivo muy vulnerable a las situaciones de crisis así como de recuperar su papel y su trabajo en el sector cultural visibilizando sus trabajos y sus reflexiones.

“TRAS LA TORMENTA”, convocatoria de exposiciones y acciones complementarias

La finalidad de esta convocatoria es la realización de una o varias exposiciones con las propuestas seleccionadas. Se concederán 25 ayudas, de 2.000 euros, y tras la

exposición serán seleccionados 5 proyectos artísticos cuya naturaleza y contenido mejor exemplifiquen, analicen y/o reflexionen sobre la coyuntura actual y la compleja respuesta social, económica, política y artística que ello representa. Estas propuestas seleccionadas recibirán un premio de 5.000 euros cada una (consultar las bases).

“ENTRE SILENCIOS”, convocatoria de textos sobre pensamiento crítico cultural

El objeto de esta convocatoria es atender, desde las prácticas de Arte Contemporáneo, la producción de pensamiento crítico que se está generando ante la situación actual derivada del Covid-19. Se seleccionará un máximo de 30 propuestas, y sus autores/as percibirán 100 euros en calidad de cesión de los derechos de difusión del texto. Se establecerá un premio único de 1.200 euros para la obra ganadora seleccionada por un jurado convocado expresamente para dicha tarea (consultar las bases).

Podrán presentarse a ambas convocatorias todas aquellas personas nacidas y/o residentes en Bizkaia, sin límite de edad, que mantengan una producción en relación con arte y el pensamiento.

[Informazio gehiago / Más información](#)



Fundación BilbaoArte Fundazioa

www.bilbaoarte.org

Prensa y comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | prentsa@bilbaoarte.eus